



**elika**

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunarako  
Euskal Fundazioa

## ESPAINIAKO ZUZENBIDEA

### Espainiako Antolamendu Juridikoa

Espainiako sistema juridikoan Konstituzioak berak berariaz onartzen ditu Zuzenbidearen iturri formalak. Bada, oro har bost arau-mailatan agertzen eta garatzen dira, eta honako hierarkiari jarraiki daude antolatuta:

1. **Konstituzioa / Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia / Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia** (Estrasburgoko auzitegia).
2. **Nazioarteko itunak / Europako Zuzenbide Erkidea:** Jatorriko Zuzenbidea eta Zuzenbide Eratorria (Araudiak eta Zuzentarauak); Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia (Luxenburgoko Auzitegia).
3. **Estatuko eta Autonomietako Legeak / Lege-indarra duten Gobernuaren Xedapenak.** (Dekretuak – Legeak eta Legegintza Dekretuak).
4. **Araudiak** (estatukoak, autonomietakoak eta tokikoak, nagusiki. Nolanahi ere, instituzio-administrazio jakin batzuek onartua dute euren helburuak lortzeko arauzko ahalmena).
5. **Zuzenbidearen printzipio orokorrak**

Xedapen edo arau juridiko horiek guztiek jatorri eta arau-maila ezberdina dute, baina sistematikoki artikulatzen dira euren aplikazioa egituratzen duten bi printzipioen inguruan. Era horretan arauen arteko gatazkak edo kontraesanak ekiditen dira. **Arau-hierarkiaren eta Arau-eskuduntzaren printzipioak** dira.

- ❖ **Arau-hierarkiaren printzipioa**: xedapen-multzo anitz honen aplikazioa arautzen du, arau-mailaren irizpideari jarraiki. Batzuek beste batzuek baino maila handiagoa dute; hortaz, gatazkaren bat sortzen denean, gailendu egiten dira eta hierarkia-maila handiagoa duten xedapenak aplikatu behar dira. Printzipio honi dagozkio aurreko bost mailak, eta bertikalki aplikatzen da.
- ❖ **Arau-eskuduntzaren printzipioa**: hierarkia-maila bereko arau-xedapenen arteko ordenazio-irizpide gisa erabiltzen da. Esate baterako, estatuko lege arruntak eta autonomietako legeak. Kasu horietan, printzipio honek azaltzen du zenbait arau-xedapen (estatuko lege bat edo autonomia bateko legea) ballagarriak direla, bakarrik, bere titularrari (Estatua edo Autonomia Erkidegoa) emandako eskuduntzen esparruan erabiltzen badira. Konstituzioaren aurkakotzat joko dira berezko eskuduntzetatik kanpoko esparruetan erabiltzen badira.

Estatuak eta Autonomia Erkidegoek **partekatutako eskuduntzei** dagokienez, Estatuaren esku uzten da "oinarrizko legegintza" eta Autonomia Erkidegoei "garapen-legegintza" edo "arau gehigarriak" emateko ahalmena. Kasu horietan, hierarkiaren eta arau-eskuduntzaren printzipioak batera erabiltzen dira, betiere garrantzi handiagoa emanda "estatutuko oinarrizko legegintzari". Hain zuzen, Autonomia Erkidegoek gai hauei begira egon eta errespetatu egin behar dute gai hauen inguruko legeak egitean.

## Espainiako Konstituzioa

Antolamendu Juridikoko arau juridiko gorena da; hortaz, beste edozeinek baino maila altuagoa du eta berak ezartzen dituen mugak gorde behar dira aldatu ahal izateko.

Konstituzioak bete egiten ditu gaur egun Eskubidezko Estatu Sozial eta Demokratikoari eskatu ahal zaizkion betekizunak:

- Legezotasun Printzipioa aldarrikatzen eta bermatzen du.
- Botereen banaketaren printzipioa bermatzen du.
- Funtsezko eskubideak eta askatasun publikoak ematen eta bermatzen ditu.
- Estatuaren lurralde-antolaketa deszentralizatua egituratzen eta bermatzen du. Horretarako Autonomia Erkidegoak sortzen ditu.
- Auzitegi Konstituzionala sortzen du, Konstituzioaren interprete gisa aritzeko.

Konstituzioak, gainera, ezarri egiten ditu arautzeko ahalmena eman zaien botere publikoak; hau da, ezarri egiten du zein botere publikok duen ahalmena Xedapen Juridikoak onesteko.

Konstituzioak, Botere Publiko ezberdinei arauak egiteko eskuduntzak ematen dizkienez, zenbait kasutan Estatuaren edo Autonomia Erkidegoen eskuduntza eskusiboen sistemaren alde egiten du; baina, nagusiki, Konstituzioak araei buruzko eskuduntza partekatuen sistemaren alde egiten du. Horrek esan nahi du Estuari ematen zaiola gai jakin bati

buruzko oinarrizko legegintza egiteko eskuduntza; baina, horrek ez du esan nahi ezin dela Autonomia Erkidegoen esku utzi garapenerako legedia edo legedi gehigarria.

## Legeak

Botere Legegileek (Gorte Orokorrak, Estatua edo Autonomietako Legebiltzarrak) emandako Xedapen Juridikoak dira, konstituzionaltasunaren kontrolaren menpe besterik ez daudenak eta Auzitegi Konstituzionalari besterik ez dagozkionak. Beste funtzionaltasun bat dute, Konstituzioak berak ematen dizkien aplikazio materialaren esparruaren arabera: **Lege Organikoak** (funtsezko eskubideak garatzeko, Autonomia Erkidegoetako Autonomia Estatutuak onesteko...) eta **Lege Arruntak**.

**Lege-erreserbaren printzipioa:** esan nahi du materia jakin batzuk, aginte konstituzionalarekin bat, jatorrian Legez baino ezin direla arautu. Horrek ez du esan nahi Administrazio Araudiek ezin dutela, gerora, gai horien arautzearen osagarri izan, betiere Legeari jarraiki.

## Lege-indarra duten Gobernuaren Xedapenak

Konstituzioak baimena ematen dio Gobernuari lege-indarra duten Xedapenak emateko balizko bi egoeratan (Lege-dekretuak eta Legegintza-dekretuak). Ez dira legeak bere horretan; izan ere, Botere Legegileak ezin ditu onetsi, baina legeen maila eta indarra dute.

**Lege-dekretuak:** legegintza-xedapenak dira, behin-behineko izaera dutenak eta Gobernuak ematen dituenak beharrian berezia eta premiazkoa dagoenean. Kasu horietan, gobernuak berezko botere arautzailea erabiltzen du.

Indarrean jarraitzeko, Lege Dekretua Diputatuen Kongresuak baliozkotu behar du. Diputatuen Kongresuak, gainera, Lege-proiektu gisa izapidetu ahal du, premia-prozeduraren bidez, egokitzat jotzen badu. Kasu horietan Lege-dekretua indargabetuko lukeen Legea onetsiko litzateke.

**Legegintza-dekretuak**: eskuordetutako legegintza duten Gobernuaren Xedapenek Legegintza-dekretu izena jasoko dute.

Gaur egun normaltasun osoz hartzen dira Lege-dekretuaren eta Legegintza-dekretuen irudiak Autonomia Erkidegoen berezko Zuzenbidean.

## Araudiak

Administrazioak emandako xedapen juridikoak dira, legeen menpe daudenak eta Administrazioarekiko Auzi Epaitegiek kontrolatu ahal dituztenak legezketasun-epaien bidez.

Lurralde Administrazio Publiko guztiek dute onarturik arauak emateko ahalmena; hau da, araudiak onesteko ahalmena, egia bada ere horietako bakoitzaren barruan organo jakin batzuek bakarrik dutela horretarako eskuduntza. Hori horrela, **estatuko, autonomietako eta tokiko Araudiak** daude.

Administrazio bakoitzaren baitan Araudiak era ezberdinetan azaltzen dira eta forma ezberdinak dituzte, datozen Administrazioaren eta eman dituen Organoaren hierarkiaren arabera.

- **Estatuaren Administrazioan, Errege Dekretu** bihurtzen dira Ministro Kontseiluak onesten dituenen (garrantzitsuenak dira

Administrazio honen baitan). Ministroek onesten dituztenean, aldiz, **Agindu** bihurtzen dira.

- **Autonomia Administrazioetan, Dekretu** bihurtzen dira Gobernu Kontseiluak onesten dituztenean. Kontseilariak onesten dituztenean, aldiz, **Agindu** bihurtzen dira.

Nolanahi ere, hala Errege Dekretuak nola Dekretuak eta Aginduak Administrazio Egintzen (isunak, diru-laguntzak, izendapenak...) adierazpide ere izan daitezke. Horren ondorioz, forma baino, edukia da erabakigarria Administrazio Egintzaren Araudia ezberdintzeko: partikularren jokabideak etorkizunari begira arautzen badira, Araudiaren aurrean gaude; alabaina, jada dauden arauak aplikatzera mugatzen bada pertsonen etorkizuneko jokabideetan eragin gabe, Administrazio Egintza izango da.